

3. Sistemaren proposamena eta berau ezartzeko faseak

3.1. Sistema eta planifikazio tresnen proposamena eta aurretiazko egoeraren aldaketak.

Egundaino esku hartutako taldeek ebaluaketarako eta programaketarako tresna desberdinak erabili izan ohi dituzte, baina bakar bakarrik txostenak egiteko eskema, urtekoa, zegokion Udalari eta Kontsortzioari aurkezten zitzaiona, eta "arrisku adierazleen" zerrenda bat zeuden bateratuta.

Txostenaren eskema horrek programaren urteko garapenaren txosten deskribatzaile bat egiteko aukera ematen zuen eta, oinarrian, xede izan ziren adingabeen kopuruaren, beren ezaugarrien eta garatutako jarduera moten, ezarritako koordinazioaren, ... gainerako datuak ematen zituen. Adingabeen bilakaera era kualitatibo batean, alorka (pertsonala, familia, eskola) deskribatzen zen eta adierazleak erabiltzen ziren, bakar bakarrik, beren egoera, txostena egiteko garaian, egiaztatze eta adierazleak jasotzen duen egoeran bizi diren adingabeen portzentaia azalduz. Nolanahi ere, txostenetan aurreko programaketaren laburpen bat eta ondorengo esku hartzerako jarraibideak jaso ohi ziren, bai eta, programaren emaitzen balorazio kualitatibo bat ere.

Komunitatearen gainerako azterketak talde desberdinek egin ohi zituzten, diseinu bateratu bati jarraitu gabe, edo gizarte zerbitzu eta udal departamentuek edo eginkizun horretarako, programa martxan jarri aurretik eta Kontsortzioari programa udalerrian ezartzeko eskaera egiteko xedez, kontratatutako enpresek egin ohi zituzten

Adierazleen zerrenda, horixe baino ez zen adierazle zerrenda bat (adierazleen kategoriak), guztiak arrisku adierazleak (ez zeuden arrisku/egokiera terminoetan formulatuta) eta batez ere adingabeen eta haien familiengan zentratuta zeuden (adingabeen eta gazteen bizitza murgiltzen den bestelako testuinguruak kontuan hartu gabe). Ez ziren programaren xede diren ezaugarri adierazleak ere bereizten, ez eragina ere.

Beraz, programa bat udalerri jakin batean ezartzearen inguruan erabakiak hartzeko unean, ez ziren oinarritzen kontsentsuaturako eta adingabekoen egoeraren eta beren bizitza aurrera daramaten testuinguru desberdinetan, eskura dauden baliabideetan, joeretan,... adierazleetan.

Ez zegoen programa marko bat, programaren helburuaren (xedeak, hartzailak) inguruko akordio bati erantzun liokeena, nahiz eta planifikazio sistema baten garapenerako ezinbesteko oinarri bat izan. Baziren esku hartzeko proiektu batzuk, talde desberdinek aurkeztutakoak lanaren esleipena lortzeari begira eginikoak.

Ez zeuden ezta ere, kontsentsuaturako programaketarako tresnak. Eta ebaluaketa eta programaketa tresnek ez zuten elkarlotura handiegirik.

Ez zeuden planifikaziorako tresna propiorik (gidoiak, eskemak, lan prozesuak), produktuak baizik (informeak, txostenak, landutako proiektuak,...).

Eta azkenik, ez zen ezta ere planifikazio sistema osorik, programan esku hartzen eta lankide ziren agente guztiek ebaluaketa eta programaketa parte hartzeko aukera jasotzen zuenik. Planifikazioaren agente nagusienak, eta ia bakarrak, hezitzaileak ziren eta planifikazioa, ondorioz, eurak egiten zuten lanean zentratzen zen.

Ondoren, aurretik zeuden tresnen eta proposatzen den planifikazio sisteman jasotzen diren tresnen konparaketa taula bat aurkeztuko dugu.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

EGUN DAUDEN PLANIFIKAZIORAKO TRESNAK	PROPOSATUTAKO TRESNAK
EBALUAKETA	
Txostenaren eskema	Ebaluaketarako eskema (adierazle sisteman oinarritzen da, erabiltzaileen bilakaera adierazle kontinuum batean oinarrituz, zehaztuz) eta ebaluaketen laburpena.
Komunitatearen azterketa (ez zituen antolaketaren bertako alderdiak jasotzen; bakar bakarrik programa udalerrian ezartzeko unean egiten zen).	Komunitatearen azterketa (beharren eta baliabideen, propioak eta besteenak, ebaluaketa, izaera estrategikoz; lau urtez behin).
Arrisku adierazleen zerrenda	Ezaugarriak jasotzeko, eragina neurtzeko adierazle sistema, programaren helburuarekin loturik (arazoak eta hipotesiak).
Detekzio / deribazio fitxa (ikastetxeekin batera erabiltzen zena) Lanaren fitxa pertsonalizatua (Biak adingabe eta familietan zentratutako arrisku adierazleetan oinarritzen dira)	Banako fitxa (bakar bakarrik adierazle jakin batzuk erkatzen dira testuinguru jakin batzuekin eta agenteen parte hartzea jasotzen da ebaluaketa, adierazleak adingabeetan eta testuingurutan zentratzen dira, arrisku eta adaptazio adierazleak izaten dira).
Egindako lanaren gaineko txostenak (formato desberdinetan)	Banako, taldeko, igarobide txostenak (adingabeak edo gazteak eta baliabideak) eta komunitateari buruzkoak. Guztiak formato berdinarekin.
Egunkaria	Kendu egin da
PROGRAMAKETA	
Urteko programa (udalerrri mailan)	Gipuzkoa osorako ildo estrategikoak eta estrategiak (lau urtetara) eta udalerrri bakoitzean (planifikazio estrategikorako tresnak).
	Kontsortzioaren Inguru Irekiko Hezkuntza Plana eta Gizarte-Hezkuntzan Esku Hartzeko Programaren Garapen Plana udalerrietan (kudeaketa planak).
Udalerrrien eskaera programan parte hartzeko (udalerrri bakoitzak egin, Kontsortzioak eginiko deialdiko oinarrien arabera).	Ordezkatu egiten da ebaluaketen laburpenekin, komunitatearen azterketarekin, lau urteetarako ildoekin eta Programaren Garapen Planarekin (udalerrrikoa).
Banako esku hartzeko proiektua	Programaketa fitxa (banako, taldeko, igarobide eta komunitateko esku hartzerako formato berdina), adierazle sistemarekin erkatua.
Udalerrrian esku hartzeko proiektu orokorra/k	Gizarte eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Programa Markoa
	Fitxa teknikoa (programa, proiektu zehatzak, jarduerak,...)

Ikus daitekeenez apenas gehitu diren planifikaziorako tresnak, baina bai garatu direla. Aldaketa adierazgarri bakarra, egunkaria ezabatzea salbu, garapen edo kudeaketa planak sartzea izan da, Kontsortzioaren eta udal gizarte zerbitzuen inplikazioa planifikazioan, handiagoa izan dadin.

Bestetik, epeak luzatu egin dira, ondorengo sistema ezarriz:

- Urtero ebaluatzen eta programatzen dira proiektuak (banakoak, taldekoak, igarobidekoak, komunitarioak)
- Bi urtez behin programaren ebaluaketa bat egiten da.
- Lau urtez behin, ebaluaketen laburpen bat egiten da.
- Lau urtez behin komunitatearen azterketa bat egiten da.
- Lau urtez behin programaren ildo estrategikoak eta estrategiak finkatzen dira.
- Bi urtez behin programaren garapen planak egiten dira.

Hala, profesionalek planifikazioan ematen duten denborari dagokionez urteko txosten bat egin beharrean, ebaluaketa egiten dute bi urtez behin. Txostenen laburpena egitea, azterketa eta plan estrategikoak eta kudeaketa planak lau urtez behin egiteko profesionalen dedikazio handiago bat eskatzen dute, hau da egun planifikazio lanetara ematen duten dedikazioa baino handiagoa. Eginkizun hauek burutzeak eskatzen du, gutxienez, esku hartze zuzena lau hilabetez behin mantsotzea, garrantzia ematen baitzaio egin den lanari eta jarraibideen gaineko gogoetari.

Kontsortzioaren izaerak berez dakar, programan esku hartzeko eskaera udalerriek urtero egin beharra. Nolanahi ere, eskaerak behar bezala egiteko, ondoren ezartzen den moduan eta betebeharrak bete beharko dira:

Programa ezarri ondorengo lehen urtean, beti ere lau urteko ziklo bakoitzaren barne, bi orriko txosten bat aurkeztuz, non lortu diren helburuak eta udal programaren garapeneko lehen planean ezarritako ildoei jarraiki gauzatu diren jarduerak jasoko diren.

Programa ezarri eta bigarren urtearen amaieran, ebaluaketa eta programaren garapen plan berri bat aurkeztuz.

Hirugarren urtearen ondoren, bi orriko txosten bat aurkeztuz, non lortu diren helburuak eta udal programaren garapeneko bigarren planean ezarritako ildoei jarraiki gauzatu diren jarduerak jasoko diren.

Laugarren urtearen ondoren, lehen bi urteko aldiari buruzko ebaluaketa, bigarren bi urteko aldiari buruzko ebaluaketa eta ebaluaketen laburpena aurkeztu beharko dira. Udalak programarekin aurrera jarraitu nahi badu, horretaz gainera, komunitatearen inguruko azterketa, hurrengo aldirako ildoak eta udal programaren lehen garapen plana aurkeztu beharko ditu, behin Kontsortzioak ezarritako ildo estrategikoen berri jasotzen duenean.

Bestalde, nahiz eta txostenak / ebaluaketak eta programazioak Kontsortzioari urtarrian aurkeztu behar bazaizkio ere, ekitaldi administratiboaren arabera, taldeek beren ebaluaketak eta programak irailean egingo dituzte, ikasturtearen arabera.

Planifikazio sisteman ebaluaketak ekainean egitea aurreikusten da (udako jarduerak hasi aurretik) eta programaketak irailean, egundaino egin den bezala.

Beraz, lehen ebaluaketa 18 hilabeteko aldi bati legokioke (urtarriletik hurrengo urteko ekainera bitarte) eta bigarrenak 14 hilabeteko aldiari (uztailetik hurrengo urteko abuztura bitarte).

Hala, laugarren urteko iraila eta abendua bitarteko hilabeteak ebaluaketen laburpena egiteko izango lirатеke eta, hala balegokio, ondorengo lau urteetarako ildoak aztertzeke edo finkatzeko.

- Planifikazio sistemak izan dezakeen bilakaera

Planifikazio sistema, oro har, osatuta dagoela iriz daiteke. Nolanahi ere, komenigarria izango litzateke, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazte eta haien familiekiko esku hartzeari dagozkion ildo eta egintzen garapena, gizarte zerbitzuen planifikazio orokorraren barne sartzea, beti ere planifikazio estrategikorako tresnak ezartzen dituen neurrian.

Hala, bada, ildoak lau urtetara eta Gizarte eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Udal Programaren Garapen Plana, gizarte zerbitzu komunitario edo udalekoen Plan estrategikoaren eta kudeaketa Planaren barneko elementuak izango lirатеke, hala izaera orokorrekoak, nola arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekiko eta haien familiekiko esku hartzearekin zehazki lotutakoak

Tresnei dagokienez, beharrezko izango litzateke adierazle sistema bakarrik garatzea. Egundaino, sisteman, ezaugarriak ezartzeko, eraginaren inguruko eta programaren helburuekin lotutako adierazleak baino ez dira jaso eta beharrezkoa izango litzateke, gutxienez, jardueren eta esku hartze eta kudeaketa prozesuen inguruko adierazleak jasotzea. Kudeaketako emaitzekin lotutako adierazleak estandariza daitezke, programaren garapen planetan erabiltzen direnekin hasiz.

Nolanahi ere, planifikazio sistema bere osotasunean, proba aldian dago eta horrenbestez, geuretzat hartu nahi dugun planifikazio ereduaren definizioan jasotako irizpideen arabera berrikusi behar da.

Hala, esate baterako, erabiltzaileak xede dituzten adierazle sistema errazteko ahalegin bat egin beharko da segur aski, batez ere adierazle sistema jardueretara eta prozesuetara zabal daitekeen neurrian eta, erabiltzaileen, langileen,... asebetetze maila neurtzeko bideak sar daitezkeen edo ezarri nahi den kalitatearen kudeaketa eremuan jasotako elementuen multzora zabal daitekeen neurrian.

Eta azkenik, Programak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin eta haien familiekin egiten den esku hartze osoa bere baitan biltzea duenez xede, beti ere gizarte zerbitzu komunitarioekin (gizarte langileak, kale hezitzaileak, famili hezitzaileak, famili terapeutak, etxex etxeko laguntza zerbitzuko langileak), era batean zein bestean, lotutako profesional guztiak egiten duten lana bere baitan bildu eta Gizartekintzan txertatzea duenez xede, sistemak profesional guztien esku hartzea ere jaso beharko luke.

Ikuspegi hau kontuan hartuz, eta bere garaian programa markoaren inguruan adierazi genuen bezala, planifikazio sistemak eta adierazle sistema desagertu egin beharko lukete, epe luzeago batean, gizarte zerbitzu komunitarioen planifikazio eta esku hartzearen beraren adierazle sistema propio baten diseinu bilakatzeko.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

Zentzu horretan, ez litzateke batere errealista izango, populazioko sektore bakoitzeko esku hartzeko sistema bat izatea (haurtzaro eta gaztedia, zaharrak, emakumezkoak, pertsona minusbaliatuak,...), eta sistema bakar bat diseinatu beharko litzateke, gizarte zerbitzu komunitarioen arduraren mailarekin lotutako adierazle sistema batetan oinarrituz.

Sistema honen diseinuari begira, erabilgarriak izan daitezke gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programako sisteman jasotzen diren adierazleetako batzuk, beti ere zerbait orokor bihurtuz.

Kontuan izan gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programaren adierazle sistema, gizarte zerbitzu komunitarioen arretako lau programatan edo mailatan oinarrituz diseinatu dela. Eta, hala, honakoak jasotzen ditu:

- Informaziora iristearekin lotutako adierazleak, zerbitzuen bestelako sistema arautuak erabiltzea,... (IVO).
- Bizikidetasun unitateak jasotzen dituen laguntza ekonomikoekin lotutako adierazleak.
- Familia eta bizikidetasun programaren baitan sartutako zerbitzuekin lotutako adierazleak, bizikidetasun unitatea osatzen duten pertsonen autonomian zentratuta.
- Gizarte zerbitzu komunitarioen hezkuntza eskaintzaren arabera lortutako edo lortu nahi diren ohiturekin, eskuduntzekin,... lotutako adierazleak (prebentzioa eta gizarteratzea).
- Baliabide komunitarioetan parte hartzearekin, baliabide autokudeatuak martxan jartzearekin,... lotutako adierazleak (sustapena eta gizarte lankidetzak).

3.2. Planifikatzeko sistema ezartzea.

Inoiz, planifikazio sistema (2000-2003) ezartzeko aldian, batera emango dira plan estrategikoak eta programaren garapen planak (2000ko abendua-2003ko abendua).

Hala, 2003ko ekainean ebaluaketa bat egingo da. 2001 eta 2002ko irailean dagokion Udalari eta Kontsortzioari txosten bat, gehienez bi orritakoa, aurkeztuko zaie eta bertan, burututako jarduera eta eginkizunen eta ildo estrategikoetan eta udal programaren garapen planean aurreikusitako helburuak zenbateraino lortu diren jasoko da.

2000ko abendura bitarte honako eginkizunak landuko dira:

- ☐ Aurreko aldi estrategikoko txostenen¹ laburpena egitea.
- ☐ "Komunitatearen azterketa" egitea (azterketa estrategikoa).
- ☐ Ildo estrategikoak eta estrategiak ezartzea (helburu orokorrak eta zehatzak hiru urtetara).
- ☐ Gizarte-hezkuntzan esku hartzeko udal programaren garapen plana egitea, helburu operatiboak, ekintzak, arduradunak, epeak eta aurrekontua zehaztuz.

Programa ezarri berria den udalerriek ez dute, logikoki, planifikazio estrategikoa babesten duen txostenen laburpenik egingo, komunitatearen azterketan oinarrituko dira.

¹ Teknikoki ez da posible izango, ebaluaketa bat, zentzu zehatzean, egitea ez baita orain arte adierazle sistema bat izan. Adierazle sistema erabiliko da lehen aldiz, komunitatearen azterketa egin ondoren, eta horren arabera oinarritzko ildo bat ezarriko da, 2003ko emaitzekin parekatzeko aukera emango duena.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

2003ko ekainetik aurrera, plan estrategikoak lau urtetako aldietarako egingo lirateke, programaren garapeneko bi plan eta bi ebaluaketa izango liratekeelarik.

Planifikazio sistema ezartzeko taula orokorra, ondoren aurkezten dena izango da.

**GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA
EZARTZEKO PLANA**

	2000 Iraila-Abendua	2003 Maiatza-Uztaila	2003 Iraila-Urria
Billabona, Hernani, Beasain	99/00 Txostena Azterketa (azterketa estrategikoa) 01-03 Plan estrategikoa eta 01-03 udal programaren garapen plana	01-03 Ebaluaketa 99-03 ebaluaketan laburpena Azterketa (azterketa estrategikoa)	03-07 Plan Estrategikoa 03-05 udal programaren garapen plana
Gainontzeko udalerriek	99/00 Txostena, txostenen laburpena Azterketa (azterketa estrategikoa) 01-03 Plan estrategikoa eta 01-03 udal programaren garapen plana	01-03 Ebaluaketa 00-03 ebaluaketan laburpena Azterketa (azterketa estrategikoa)	03-07 Plan Estrategikoa 03-05 udal programaren garapen plana
	2005 Maiatza-Uztaila	2007 Maiatza-Uztaila	2007 Iraila-Abendua
Udalerri guztiak	03-05 Ebaluaketa 05-07 udal programaren garapen plana	05-07 Ebaluaketa 03-07 ebaluaketan laburpena Azterketa (azterketa estrategikoa)	07-11 Plan Estrategikoa 07-09 udal programaren garapen plana